



BARREN

TOPIKOM

# Ikasgela dinamikoa naturan





LANBIDE  
HEZIKETAKO  
ESKAINTZA  
2021-22

ESKABIDEAK  
AURKEZTEKO  
MAIATZAREN 31 TIK  
EKAINAREN 18 RA

MATRIKULA  
UZTAILAK 19-20-21



ArmeriaEskola<sup>x</sup>

Isasi 36, Eibar · 943 20 32 44

eibar@armeriaeskola.eus

www.armeriaeskola.eus



GOI MAILAKO  
ZIKLOAK

ERDI MAILAKO  
ZIKLOAK



DISEINUA  
FABRIKAZIO  
MEKANIKOAN



PRODUKZIOAREN  
PROGRAMAZIOA  
FM-an



TELEKOMUNIKAZIO  
ETA INFORMATIKA  
SISTEMAK



AUTOMATIZAZIOA  
ETA ROBOTIKA  
INDUSTRIALA\*



MEKATRONIKA  
INDUSTRIALA



MANTENTZE-LAN  
ELEKTRONIKOA



MEKANIZAZIOA



INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK ETA  
AUTOMATIKOAK

Katamixarren  
basoa

naturan  
hazi eta  
hezteko  
gunea

HH3 - LH6 BITARTEKO UMEENTZAT  
IZEN EMATEA: MAIATZAK 24 - UZTAILAK 2

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA

WWW.ELGOIBARKOIZARRA.EUS

943 74 17 46

ATXUTXIAMAIIKA@ELGOIBARKOIZARRA.EUS



UXILLARRE  
ER. 581 104





ANE KORTABERRIA

Ikasle ekintzailea

## “Flower power” VS Ikuspuntu optimista

lehen egunetan taldekide batzuek *flower power* deitzen zidatela, aurreikusten nituen egoera batzuk aipatzean paso egiten zutenean eta nire ikuspuntu optimista batzutan nekagarria zela ziote-nean.

Honelako egoerak momentuan bertan ez dira batere atseginak izaten baina orain, begirada atzera botata eta umoretsu, oso garrantzitsuak izan direla esan dezaket, horiei esker asko ikasi dudalako.

Hala ere, iritzi asko entzun ditudan arren, nire esentzia mantentzen saiatu naiz. Gainera, beti izpiritu ekintzailea eta pentsaera optimista izatea poliki-poliki fruituak ematen hasi dela esan dezaket.

Orain, unibertsitatearekin Costarican nago eta egia esan, zorte handiko pertsona naiz aukera hau bizi ahal dudalako. Beraz, bi aldiz pentsatu gabe, saiatzen ari naiz nire indar, gogo eta energia guztia jartzen. egiten dudan denean. Inoiz ez dakit emaitza zein izango den, baina garbi daukat gogorik gabe ez naizela geratuko, neure buruarengan sinisten jarraituko dudala eta beti aukeren bila joateari ekingo diodala.

Oraingoz, egindakoak merezi izan du, astebete daramat herrialde izugarri honetan eta ez dizuet gezurrik esango, alde batetik bestera nabil denbora osoan, baina hori bai, nire lasaialdi momentuak ere badituzt eta asko disfrutatzen ari naiz... *pura vida!*

**B**eti esan didate ez naizela geldirik egoten eta plan bat antolatzen denean bertan nagoela. Egia esan ez zaie arrazoirik falta, aukerak aprobeztatzea eta gehienetan geldirik ez egotea asko atsegin dudalako. Ezaugarri hauek izateak onura asko ekarri dizkit, baina bere alde txarrak ere baditu. Askotan oso pertsona bizia, biziegia naiz, energia asko izaten dut, baikorra naiz eta momentuaren arabera, desatsegina izan daiteke, noski.

Beti gogoratuko dut unibertsitateko

*“Izpiritu ekintzailea eta pentsaera optimista izatea poliki-poliki fruituak ematen hasi dela esan dezaket”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Legebiltzarreko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztazko ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ► BIZIKLETA MARTXA

Hilaren 30ean, igandez, bizikleta martxa egingo da Oñatitik Elgoibarrera. Adin nagusiko presoak eta larri daudenak etxeratzea eta, orohar, salbuespeneko espetxe politikak bertan behera uzteko eskatuko dira martxa horrekin. Martxa goizeko 10:00etan irtengo da Oñatiko Foruen plazatik eta Elorregi, Bergara, Osintxu eta Soraluze zeharkatuko ditu, Elgoibarren bukatzeko. Maalako parkean emango zaio ongi-etorria, eta handik Kalebarren plazaraino oinez egingo du ibilbidea (adi aldaketari!). Kalebarren plazan ekitaldia izango da. Bertan Judas Argarate taldeak hainbat pieza joko ditu, eta SAREko eleduna den Inaxio Oiartzabalek hitz egingo du.

Elgoibartik goizeko 8:30ean irtengo gara Oñatira bizikletaz joan nahi dugunok, Kalegoen plazatik. Goizeko 9:00etan irtengo dira Oñati-Elgoibar egin nahi dutenak (garraioa ziurtatuta izango dute, izena emanda baldin badute).

Lerro hauen bidez elgoibartarrak animatu nahi ditugu parte hartzera: bizikletan, ongi-etorria ematera Maalan 12:45ean edota ekitaldian parte hartzen (13:00etan, Kalebarren plazan). Pauso batzuk ematen ikusten hasiak gaude dagoeneko. Bultza dezagun beste pauso sakonago batzuk etor daitezten lehenbailehen.

### Elgoibarko Sare

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitzik argitaratuko.





## 1957

**A**rantxa Arrietak bidali digu gaur zuekin partekatu nahi dugun erretratu zahar hau. 1957. urtean egindako argazkia da eta kuadrillako lagunekin ageri da Arantxa bera. Labordeta argazkilariaren estudioan egindako argazkia dela esan digu, hara joaten zirela elgoibartar asko argazkiak egitera. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkikoak.

**Zutik:** Maria Luisa Zubiaurre, Consuelo Carcia (+), Rosario Andonegi eta Itziar Etxaniz **Behean:** Elena Alberdi, Belen Muñoz (+) eta Arantxa Arrieta.



## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Barreneko bulegora ekarri:


Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.





## Joserra Ezenarro izendatu dute Gipuzkoako Nagusilaneko presidente

Joserra Ezenarro, 2018tik Elgoibarko Nagusilan boluntario sareko ardura duna izan dena, izendatu dute Nagusilango Gipuzkoako presidente. Nagusilan elkarteak 1995ean sortu zuten adineko pertsonen ekimenez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren eta Gizarte Politiken gaineko Ikerketa eta Azterketa Zentroaren (SIIS) laguntzarekin. Irabazi asmorik gabeko elkarteak da, boluntarioz osatutakoa eta bakardade egoeran dauden edadeko pertsonen laguntza dute egitekotzat. Zahartze aktiboa ere sustatzen dute, eta esaldi batek laburbiltzen du haien izatea: "Adineko pertsonak ez gara bizitzatik erretirutzen. Garena izateagatik, gure esperientziagatik eta egun egiten dakigunagatik balio dugun subjektu aktiboa gara". Gaur egun, 1.150 boluntariok osatzen dute elkarteak eta 8.500 bat laguni laguntzen diete. Joan zen astean hartu zuen kargua Ezenarrok, eta Jose Luis Elosua (Zumaia, 1936) ordezkatu du presidente karguan.



### Presoen eskubideen aldeko bizikleta martxa, domekan

Salbuespenezko espetze politika bertan behera lagatzeko eta larriki gaixo dauden presoak askatzeko eskatuko du Sarek domekan. Sebas Etxaniz elgoibartarrak 78 urte beteko ditu aurten, eta Joseba Arregi oñatiarrak, 75 urte. Etxaniz, etxean dago eskuko telematikoarekin, eta Arregi, Martuteneko espetxean. Oñati eta Elgoibar lotuko dituen bizikleta martxa egingo dute domekan. 10:00etan irtengo da tropela Oñatiko plazatik eta Elgoibarren bukatuko da martxa, Maalako parkean. Segidan, Kalebarren plazan egingo dute ekitaldia. Informazio gehiagorako edo izena emateko, ondorengo telefonora deitu behar da: 692 706 011. Gaur, bestalde, *Josu Lariz etxera! Salbuespenezko espetze politikarik ez!* lemapean elkarretaratzea egingo dute 20:00etan, Kalegoen plazan.

## Palestinarreri elkartasuna agertzeko elkarretaratzea egin zuten barikuan Kalegoen plazan




Palestinarreri elkartasuna adierazi zieten hainbat elgoibartarrek joan zen barikuan egin zuten elkarretaratzean. *Palestina aurrera!* lelopean batu ziren hainbat herritar, Israelen erasoak salatuz. Israelgo Gobernuak eta Hamasek "baldintzarik gabeko eta aldebiko su-etena" egitea onartu zuten hain justu ere joan zen eguenean, eta bariku goizean sartu zen indarrean, 11 eguneko borroka gordinaren ostean. Gutxienez 232 palestinar hil dituzte Gazako Eremuan, gehiengoak zibilak, eta 1.900 palestinarretik gora zauritu dira, Israelen bonbardaketen ondorioz. Israelen, berriz, 12 pertsona (bi haur tartean) hil dira milizia palestinarrek jaurtitako koheteen ondorioz.

### Odol emaelek omenduko dituzte domekan

Koronabirusa dela-eta, odol emaele karte bakoitzak bere herrian egingo du emaele eskerrak emateko ekitaldia, domekan. Elgoibarren 15 lagun omenduko dituzte, eta Mendaron, berriz, bi. Jubilatuen Biltokian egingo dute ekitaldia Elgoibarren, 11:00etatik aurrera. Odola 25 aldiz eman duten zortzi lagun, 40 aldiz eman duten bi, 50 aldiz eman duten hiru eta 75 aldiz eman duten bi omenduko dituzte. 25 aldiz emandakoak hauek dira: Xabier Alberdi, Daniel Alonso, Elena Eguren, Mikel Elustondo, Iker Izagirre, Oihana Larrea, Ana Martin, Aina Sanchez. 40 aldiz, hauek eman dute: Nerea Juaristi, Paki Lucha. 50 aldiz: Alberto Garate, Francisco Mugerza, Marciano Rodriguez. 75 aldiz: Manuel Astray, Ricardo Diego. Mendaroko omenduak Asier Lazaro baster eta Unai Aizpurua dira, 25 aldiz eman dute odola..



## 26.800 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Txankakuari tokiko merkataritza eta ElgoibarKlik sustatzeko



COVID-19aren ondorioak arindu nahian, tokiko merkataritza suspertzeko hainbat ekimen sustatu zituen iaz Elgoibarko Udalak, eta ia 300.000 euro eman zituen hiri-ekonomia babesteko. Ildo horretatik 20.600 euroko laguntza emango dio orain Udalak Txankakua merkataritza elkarteari herriko merkataritza babestu eta bultzatzen jarraitzeko. Laguntza hori bi atal nagusitan banatuko dute: 5.020 euro merkataritza dinamizatzeko ekintzak egiteko izango dira, hala nola, kanpaina bereziak, deskontuak, zozketa zein sariak... Gainerako 21.780 euroak, aldiz, iaz martxan jarritako ElgoibarKlik plataforma digitala garatzen eta sustatzen jarraitzeko erabiliko dituzte.

### Elgoibarklik

Udalak 2020an jarri zuen martxan ElgoibarKlik plataforma, Txankakua merkataritza elkartearekin elkarlanean. Plataforma honen helburu nagusia da Elgoibarko saltokiei ikusgarritasuna ematea, eta bide batez, herriko komertzioari salmenta modu berri-tara egokitzeko aukera eskaintzea, eta baita, bezeroei erosketak egiteko modu berri bat eskaintzea ere. Udalak 59.000 euro inbertitu zituen, eta dagoeneko ehun establezimendu baino gehiago sartu dira bertan. Udaletik esan dutenez, 2021ean merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako establezimenduak erakartzeko lanean jarraituko dute, haien partaidetza handitu eta plataformaren eskaintza udalerriko establezimendu gehienekin osatu ahal izateko. Horrekin batera, Albisteak izeneko atala gehituko diote plataformari, horren barruan, herritarrentzako interesgarria den informazioa jasotzeko. Era berean, plataforma ezagutzera emateko eta bere erabilera sustatzeko hainbat ekintza aurreikusi dituzte arduradunek: plataformaren profil propioak Facebooken eta Instagramen (asteroko argitalpenekin), ekitaldi desberdinak, online lehiaketak...

Elgoibarklik plataforman izena eman ez duten ostalari, merkataritza edo zerbitzuek aukera dute oraindik izena emateko. Horretarako, Txankakua merkataritza elkartearekin harremanetan jarri behar dute: 943 747 301 telefono zenbakira deituta edo ondorengo e-posta helbidera idatzita: [txankakua.elkartea@gmail.com](mailto:txankakua.elkartea@gmail.com).

### 472 herritarrek eman dute botoa aurrekontu parte-hartzaileetan

Hirugarren urtez jarri du martxan Elgoibarko Udalak aurrekontu parte-hartzaileen ekimena, eta jakinarazi dute 200.000 euro erabiliko dituztela herritarrek aukeratzeko proiektuak gauzatzeko. Aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasean herritarrek 231 proiektu proposatu zituzten, eta jasotako proposamen horietatik 16 aukeratu zituen Udalak. Bigarren fasean, 16 proiektu horiek bozkatu behar zituzten herritarrek, eta guztira, 472 herritarrek (189 gizon eta 263 emakume) hartu dute parte bozketan. 255 lagunek online eman dute botoa, 167k presentzialki eman dute botoa horretarako jarritako kutxetan eta beste 50ek Udalak kalean jarri zituen karpeta joanda eman dute botoa. 20 galdegi, baina, ez dituzte onartu, ez zeudelako behar bezala beteta. Boto gehien jasotzen dituzten 5 proiektu lehenetsiko ditu Udalak. Orain, udal politikari zein teknikariak bozketaren emaitzak aztertzen ari dira, eta datozen asteotan jakinaraziko dituzte behin betiko emaitzak. Udalak eskerrak eman dizkie prozesuan parte-hartu duten elgoibartar guztiei.

Prozesu honi lotuta, ondorengoak dira aurreko bi edizioetan herritarrek adostuta aurrera eramandiren proiektuetako batzuk: Bolatokiko parkearen eta Bernardo Ezenarro kalearen berrurbanizazioak, Aizkorri eta Urazandi lotzen dituen pasealekuko hobekuntzak, Lekueder eta eliza arteko galtzada-harriak aldatzea edo "Karakoleko" zubia konpontzea.



## Bizilabe zientzia jardunaldietan izena emateko epea zabalik dago

Zabalik dago Elgoibarko Udalak Elhuyarrekin batera sustatutako Bizilabe zientzia jardunaldien aisialdi-eskaintzan izena emateko epea. Bizilabe 10-14 urte bitarteko gazteentzako aisialdi-eskaintza da, eta besteak beste, zientzia eta teknologia tailerrak, proiektuak eta irteerak egingo dituzte gazteek. IMHn emango dituzte eskolak, 2021eko urritik 2022ko maiatzera. Era berean, eskualdeko ikerketa-zentroak eta enpresak bisitatuko dituzte gazteek, eta ikertzaileekin harremanetan izango dira. Horrez gain, hainbat zientzia-jarduera egingo dituzte herriko eragileekin elkarlanean. Izena emateko lehenengo txanda ekainaren 10ean amaituko da. Hortik aurrera, libre geratu diren plazetarako izena emateko aukera bakarrik egongo da. Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko ondorengo webgunean sartu behar da: [www.bizilabe.elhuyar.eus/elgoibar](http://www.bizilabe.elhuyar.eus/elgoibar)

## Eskolara bidea oinez egiteko markak margotuko dituzte Mendaron

Eskolarako bidea oinez egiteko egitasmoa jarriko du martxan Mendaroko Arno Guraso Elkarteak datorren astelehenean, eta horretarako, ikastolarako bidean oin markak margotuko dituzte. Biharko jarri dute hitzordua: 10:30ean elkartuko dira familiak Herriko Enparantzan, eta taldetan banatuta, ikastolarako bidea markatuko dute. Elkarguneak eta puntu beltzak markatuko dituzte elkarrekin, eskolarako bidean lagungarri izateko. Margoak eta gainerako material guztia guraso elkarteak jarriko du. Herriko musikari lagunak ere gonbidatu dituzte ekintzara, eskolarako bidea alaitzeko asmoz. Auzo bakoitzetik abiatuko dira margolarien brigadak eta ikastolan elkartuko dira guztiak. Ekitaldiaren amaieran sorpresaren bat ere egongo dela iragarri dute antolatzaileek.

## Udako egonaldiak zaharren egoitzetan

Elgoibarko Udaleko Ongizate Saitetik jakinarazi dute zabaldu dutela udan adinako egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko eskabideak aurkezteko epea. Egonaldiok hamabost egunekoak izango dira, ekainaren 14tik irailaren 30era tartean, eta gehienez txanda baterako eman ahalko da izena. Ekainaren 14an hasiko da kanpaina eta irailaren 30ean bukatu. Txandak hamabost egunekoak izango dira, eta eskabideak aurkezteko epea zabalik dago. Ongizateetik jakinarazi dute egonaldietarako sarrera eta irteera egunek ez dutela zertan hilaren 1arekin, 15arekin edota hilabeteko azken egunarekin bat etorri behar. Ekaineko zein uztaileko egonaldietarako izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da. Abuztuko egonaldietarako, berriz, ekainaren 25a aurretik eman beharko da izena, eta azkenik, iraileko egonaldietarako izena emateko azken eguna uztailearen 9a izango da. Eskabideak aurkezteko txanda eskatu beharko da Herritarren Arreta Zerbitzuan edota 943 741 050 telefono zenbakira deituta.

## Astebeteko epean bi istripu izan dira Urazandi auzoko bihurgune batean



Joan zen bariku arratsaldean bi autok istripua izan zuten Urazandi auzoan. Errepidea bustita zegoen euraren ondorioz, eta elkar jo zuten bi autok. Anbulantzia bertaratu behar izan zen auto gidariak artatzera. Astebete aurretik, maiatzaren 15ean, beste auto batek ere istripua izan zuen bihurgune berean. Zapatu gava zen, eta aldapan goranzko norabidean zihonan auto bat errepidetik irten zen. Baranda eta farola jo zituen.

## Aita Agirre Kultur Kafea itxita dago

Joan zen barikuan izan zuen azken eguna Aita Agirre Kultur Kafeak, eta ordutik, itxita dago. 2019ko abenduaren 12an zabaldu zuten Kultur Kafea. Udalak lehiaketa publikoa egin zuen taberna esleitzeko, eta bigarren deialdian aukeratu zuten Noel Isasiren proposamena. Bi urterako kontratua sinatu zuten. Kontratu horren barruan, 7.272,1 euro ordaindu behar zituen kudeatzaileak urtero, eta, besteak beste, hilean kultur ikuskizun bat antolatu behar zuten. Joan zen maiatzaren 11n jakinarazi zion Isasik Udalari kultur kafea uzteko asmoa zuela galera ekonomikoak arrazoituta, eta hilaren 21ean itxi zuten taberna. Udaleko arduradunek jakinarazi dute berriz ere esleipena abian jartzeko prozedura abiatu dutela Udal barruan, eta ahalik eta denbora laburrenean kultur kafea berriz zabaltzeko helburua dutela.



### Dirulaguntza zuzenak eskatzeko epea zabalik dute ostalariek

Elgoibarko Udalak 120.000 euro aurreikusi ditu aurtengo aurrekontuetan herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko, eta horren barruan, ostalarientzako dirulaguntza zuzenak emateko deialdia ireki du. 60.000 euroko partida zuzenduko du herriko ostalaritza indartzera, eta eskatzaile bakoitzak 1.200 euroko diru laguntza zuzena jaso ahal izango du. Kreditu agortu ondoren erantzun gabeko eskaerarik egonez gero, diru kopurua handitzeko konpromisoa agertu du Udalak. Diru laguntza eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean ekainaren 15a baino lehen. Informazio guztia Udalaren webgunean eskuratu daiteke.

### Patio inklusiboaren gaiari lotuta jaso dituzten irain eta mehatxuen aurrean babesa agertu dio Mendaroko Udalak Arno Guraso Elkarteari

Ikastolako jolastokiaren egituraren eta diseinuaren inguruko gogoeta hasi du Mendaroko Arno Guraso Elkarteak, patioaren erabilera ekitatiboagoa egin aldera. Arnon uste dute eskola-ingurunea leku aproposa dela haurrak jolasera eta mugitzera bultzatzeko, bai eta eskola orduz kanpo familien arteko harremanak sustatzeko ere, baina egungo egitura eta diseinuak bazter uzten dituela haur batzuk, bereziki neskek eta hain aktiboak ez diren haurrak. Horregatik, parte-hartze prozesu bat abiatu nahi izan dute. Arnoren ekimenez, patioaren inguruko prozesua lantzeko batzordea ere sortu dute herrian. Udalean ordezkariak duten hiru alderdiek, Ikastolak, Ongizate Sailak, Gazteleku eta Ludotekako arduradunek, Kultura teknikariak eta patioaren ohiko erabiltzaile batek osatzen dute lantaldea. Paraleloan, sentsibilizazio kanpaina ere hasi dute Arnotik, eta maiatzaren 6an solasaldi bat antolatu zuten. Mikel Olaizola Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolako aholkularia, Ibon Mendoza Oartzungo eskolako gorpuz hezkuntzako irakaslea, Eli Zubeldia Zumaiaiko eskolako jolastokiko obra zuzendari eta Zarauzko Balurdin guraso elkarteko ordezkaria eta Jabi Muñoz Arnoko kide batek parte hartu zuten hitzaldian. Joan zen ostiralean, hitzaldiko grabazioak sareratu zituzten blogean ([arnogurasoelkartea.eus](http://arnogurasoelkartea.eus)) eta egunean bertan irainak, mezu matxistak eta mehatxuak jaso zituzten iruzkinetan. Ostiral gauean bertan agiria kaleratu zuten Arno Guraso Elkarteak blogean, jasotako iruzkinen argazkiekin batera. "Lerro hauen bidez argi laga nahi dugu Arnok zabalik duela atea eta era guztietako ekarpenak jasotzeko prest gaudela, baita kritikak ere, beti ere errespetuz egiten badira", jaso dute idatzi horretan. Arno Mendaroko Ikastolako Guraso Elkarteak jaso dituen irain eta mehatxuak gaitzetsi ditu Mendaroko Udalak, eta Arnoko kideek publiko egin duten adierazpenarekin bat egin du. "Herri demokratikoa da gurea, eta gizalegez jokatu behar dugu, urkoa eta gure erakunde zein eragileak errespetatuz", adierazi dute.





# Basoa, ikasgela



## Katamixarren basoa

**Katamixarren basoa sortu dute Txillarre Baserriak eta Elgoibarko Izarrak elkarlanean, naturan hazteko eta hezteko gunea. HH3tik LH6ra arteko umeak hartuko dituzte bertan, eskola orduz kanpo. Naturara gerturatuko dituzte, gauza jakina baita ezagutzea baino gauza hoberik ez dagoela baloratzeko eta zaintzeko; bai eta parte sentitzeko ere. Proiektu honen barruan, baserri mundua ere ezagutuko dute, ortuan lan egiteko eta etxe-abereak zaintzeko aukera ere izango dutelako parte-hartzaileek. "Ahuntzak eta txerriak izango dira, eta oilatokia ere sortuko dugu". Esperimentaziorako espazioa izango da Katamixarren basoa eta jolas librea, han erabiliko duten ikasketa metodologia. Irailean zabalduko dute, eta uztailaren 2ra arteko epea dago izena emateko ([www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)).**

- AINARA ARGOITIA -

Ikasgela dinamiko bat da natura, aldakorra; beti eskaintzen du gauza berriren bat. Hori du gauza biziak. Esperimentaziorako espazio aberatsa da beraz basoa, toki patxadazkoa, gure gizarteak oso bere dituen estimulu azkarrigabea eta gaitasun asko garatzeko aukera ematen diena haurrei (eta helduei), erritmoa pausatuta. "Izan ere, azkarregi bizi gara", dio Argiñe Rubiok. Katamixarren basoaren sustatzaileetako bat da Rubio. Elgoibarko Izarraren Atxuxiamaika Aisialdi Taldearekin batera sortu du naturan hezi eta hezteko gunea hori, Txillarre baserriko lurretan. Tokia zehaztu dute, baina hala ere, beti toki berera joanda ere, aldiro, espazio berri bat topatuko dute Katamixarren basora doazenek, inguru bizi bat, bost zentzumenak aktibatzen eta naturaren parte direla sentitzeko aukera emango diena.

Horixe duelako helburu nagusia Katamixarren basoak. Naturara gerturatzea bilatzen du proiektuak, eta egungo bizimodu azkar eta arrapaladatsuari sosegua ematera dator. "Gaur egun dena presaka egin nahi izaten dugu, ahalik eta azkarren. Naturaren denbora tarteak luzeagoak dira, hala ere, eta ezin dira aldatu edo azkartu. Eta lasaitasun horrek erlaxatzen eta lurrarekin konektatzen laguntzen digu", dio Rubiok. Bigarrenengoz ama izateko zegoela sortu zitzaion behar hori berari. Edo gutxienez, orduan hartu zuen astia kezka hari behar zuen arreta eskaintzeko. Madrilgo baso eskolak antolatutako jardunaldi batzuetarako eman zuen izena [Iberiar penintsulako baso eskola homologatu bakarra



da Madrilgo Bosqueescuela, nahiz badiren handik edaten duten beste hainbat eskola libre ere] eta "liluratuta" itzuli zen handik. Sasoi beretsuan, Txillarren urteetan "abandonatuta" zuten lur saila garbitzeari ekin zion Rubioren mutil-lagunak, Arkaitz Iruretak, eta buruan bueltaka zebilkien ametsa gauzatzeko lekua ikusi zuen han Rubiok. "2 urteko alaba eta 11 urteko semea dauzkat. Alabari eskaini ahal nizkion gauza interesgarriak naturan nik neuk, baina semeak, duen adinagatik, sozializatzea behar zuen, lagunak behar zituen, eta pentsatu nuen sortu ahalko genukeela zerbait hemen eta ume guztiei zabaldu atea". Atxutxiamaikan ere aspaldi ari ziren gai horren inguruan hausnarrean eta bazuten Rubioren ametsen berri. Horregatik, bidea elkarrekin egitea erabaki zuten irailan. "Txikientzat zer eskaintzen genuen galdezka deitzen zigun jendeak Elgoibarko Izarrara, baina areto itxietan ezin genuen ezer antolatu gure balioei leial izanda. Era berean, pandemia betean, hori zen jendeak sekula baino ozenago eskatzen zuena ere: aire libreko aisia eskaintza", dio Naiara Martin hezitzaileak eta Atxutxiamaikako arduradunak. Heike Freire pedagogo eta irakasle izan duenaren hitzak ekarri ditu Martinek: "Osasuntsu garatuko badira, espazio irekietan mugitzeko eta jolasteko beha-



rra dute umeek, eta landareekin, animaliekin eta beste haurrekin kontaktuan egotekoa". Eta oinarri horretatik abiatuta Kutxa Fundaziora dirulaguntza eskatzea erabaki zuten. Bultzada ezinbestekoa izan zen hori irailan zabaldu asmo duten proiekturako.

### BASO ESKOLEN FILOSOFIA

Munduan, eta bereziki Europan, oso zabaldua dauden baso-  
eskolen filosofia du oinarrian Katamixarren basoak. Danimarkan  
sortu zuten eredua 50eko hamarkadan, *Skov-Skole* (Basoko es-

## Jakingarriak

**NORENTZAT:** HH3tik LH6ra arteko haurrentzat.

**AUKERAK:** Astean hiru egunez zabalduko dute Katamixarren basoa: martitzen, eguazten eta eguenetan, 16:45etik 18:45era. Baina aukeran jarriko dute. Egun bakarerrako eman ahal izango dute haurrek izena, edo bitarako, edo hiruretarako.

**KUOTA:** Astean behin doanak hilean 30 euro ordaindu beharko ditu. Birritan doanak 60, eta astean hirutan doanak, hilean 90 euro. Elgoibarko Izarrako bazkideei %10eko deskontua egingo diete.

**IZENA EMATEKO EPEA:** Uztailaren 2a izango da izena emateko azken eguna. Ikasturtea iraileko bigarren hamabostaldian hasiko dute, baina oraindik ez dute zehaztu zein eguenetan. Nolanahi ere, ikasturtea hasi aurretik, atea irekitzeko eguna antolatuko dute, interesa duten guztiak joan daitezzen Katamixarren basoa zer den ikustera.

**HAURRAK ERAMAN ETA JASO:** Sallobeste auzoan jasoko dituzte haurrak, Mokoroa parean. Handik oinez



Argiñe Rubio eta Naiara Martin.

igoko dira Katamixarren basora. Errepide ondoko zubia igaro eta bi minutu eskasera dago basoa.

**ARROPA:** Euritarako peto bana emango diete HHko haurrei izena ematean, eta euritarako prakak LHkoei.

**HELBURUAK.** Hainbat helburu zehaztu dituzte: Naturarekin elkarrekin aritzeko espazioa eskaintzea aisia hezitzailearen bitartez. Euskarazko komunikazioa eta ahozkotetasuna lantzea. Haurren autonomia lantzea (ekintzari eta pentsamenduari dagokionez), euren

emozio eta interesekin konektatzeko aukera eskainita. Umeen arteko elkarbizitza eta elkarlana sustatzea. Nekazaritzara gerturatzea eta sektore hori ezagutzera ematea. Haurren sormena sustatzea naturaren bitartez. Euskal kulturara hurbiltzea baserriko mundua, tresneria, auzolana eta abarrik ezagutzeko aukera emanda. Gurasoak basoeskolara gerturatzeke ekintzak garatzea. Genero rola gaintzea pedagogia berdearen bitartez.

**LAN METODOLOGIA.** Jolas librea.





kolak) eta inguruko herrietara zabalduz joan zen. Alemanian, esaterako, ehunka daude, eta gehienak gobernuak berak sustatzen ditu. Euskal Herrian ere badaude era horretako eskolak. Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak 2019an homologatu zituen aurrenekoak: Azkoitiko Bizilore eskola, Zallako Landabaso eskola eta Berrizko Umerri eskola. Eta horiez gain, badaude beste eskola batzuk ere, naturarekin harreman zuzena sustatzen dutenak. Katamixarren basoa, baina, ez da eskola, orduz kanporako aisia hezitzaileko gunea baizik. "Madrilen egin nuen ikastaro hartan Malagako bikote bat ezagutu nuen. Ordura arte baso eskolen eredu ezagutzen nuen, eta eskola horietako gehienek formatoa bera da: goizetan, umeak basora joaten dira, ikasgelan ikasiko luketena ikastera. Baina, gehienetan, 3tik 6 urtera bitartekoentzat da bakarrik, eta hori luzatu beharra ikusten nuen". Malagako bikote hark, baina, beste eredu bat erakutsi zion Rubiori: eskola orduz kanpoko eskaintza zen haiena. "Han, naturagune bat eskaintzen diete haurrei, eta beste asko ingeles eskoletara edo musika eskolara doazen bezala, han, umeak basora joaten dira esperimintuz. Eta eredu hori gauzagarriagoa iruditzen zitzaidan neri honako", zehaztu du.

## "Eguraldia ezin da trabarako izan. Norvegiarren esakerak dio ez dagoela eguraldi txarrik, arropa desegokia baizik"

Txillarreko lurretan zabalduko dute Katamixarren basoa, base-ria baino beheagoan. Hezitzaileek Sallobenten, Mokoroako bigurutzan, jasoko dituzte haurrak eta oinez igoko dira basora. "Bi minutuko bidea dago errepidetik basora". Bi espazio bereziko dituzte han. HHkoentzat prestatutako baso zatia errepidetik gertuago dago. Lur-sail lauagoa da eta bertan jarriko dute estalpea ere. Handik goraxeago ibiliko dira LHkoak. Arbola gehiagoko lekua da, "basoagoa". "Printzipioz hala aurreikusitako dugu, baina umeekin lanean hasten garenean ikusiko dugu zeintzuk diren euren beharrak, zer eskatzen dute", zehaztu du Rubiok. Izena ematen duten guztiei euritarako jantziak emango dizkiete han bertan, bi orduz haurrak nahieran ibil daitezzen, busteko eta zikintzeko beldurrik gabe, egin euria nahiz ez. Badagoelako hortatik ere gure gaurko gizartean. Ingurumenarekin harreman estuago bat izateko bidea zabalteak eskuak zikintzea eta hankak bustea ere eskatzen du batzuetan, baina "hain gaude desnaturalizatuta" hori ere arriskutsutzat jotzen dugula. "Lurra edo lokatza zikina dira gaur", esan du horren harira Rubiok. "Eguraldia ezin da, baina, jolaserako traba izan. Norvegiarren esakera batek dio ez dagoela eguraldi txarrik, arropa desegokia baizik", gehitu du. Garbi dute umei aukeran eman ez gero, gehienek hori eskatuko luketela: lokatzetan jolastea, uretan bustea... Ulertzen dute, hala ere, gura-



soen kezka. "Abiada bizian bizi gara eta denboraren optimizazioa bilatzen dugu. Uraza ere garbituta eta plastikozko barruan baldin badator, nahiago; garbitu beharrik ez hartara! Baina hori da benetan behar duguna? Komeni zaiguna? Nahi duguna?", bota du Martinek.

Edozelan ere, biofobia edo naturarekiko beldur hori ere, haurrek oso barneratuta dutela ikusten dute. "Zenbat ume ezin dute gaur hondarrik edo belarrik zapaldu, zenbat ikaratzen dira armiarma txiki bat ikustean edo tristetzen zikintzen direnean. Ezinbesteko beharra dago umeak naturarekin konektatzeko". Eta ezinbestekoa ikusten dute gurasoekin pedagogia egitea ere. Mezua prest dute. Esan nahiko liekete gure gorputzak ezin hobeto prestatuta daudela inguru horretan hazteko eta ikasteko, eta natura bereziki haurtzarokoan behar dugula, "gure organismoa, oro har, eta bereziki gure nerbio-sistema heltzeko; horri esker, identitate autonomoa ere eraikitzen dugu".

### ESKOLA EZ DEN ESKOLA

"Katamixarren basoan, natura izango da ikasteko gunea, baina guk ez dugu eskolarik emango", azpimarratu du Naiara Martinek. Gidariak behatzaileak izango dira. "Gune seguru bat" eskainiko diete haurrei, gunea natural eta babestu bat, baina eurek ez dute esku hartuko, ez bada oso puntualki. "Naturak jartzen dituen baliabideez gain, estalpe bat, lupak, prismatikoak, eskaileak, sokak, hamakak, ontziak, ura... jarriko ditugu". Katamixarren basoa proiektuaren sustatzaileek argi dute umea ingurunea esploratzeko grina duen izaki aktiboa dela, nahiz gaur egun, oso kamustua duten grina hori; edo nahiago bada, kamustua diegun. Dio areto itxietan eta gaur egungo jolastoki gehienetan, oso egituratuta dauden baliabideak edo materialak egon ohi direla eta horrek jarduera eta

ekintza zehatz batzuk egitera bultzatzen dituela umeak; eta, jakina, "aukera guztiak ikertu dituztenean" zer egin ez dakitela gelditzen direla. Aldiz, Naiara Martinen esanetan, natur inguruneek ez dute molde jakin bat ezartzen, eta beraz, ez dute haurren jarduera baldintzatzen. Naturako elementuek hamaika erabilera izan ditzateke. "Horrek ate bat zabalitzen dio sormenari. Zenbat eta material gutxiago erabili orduan eta gehiago lantzen delako sormena". Izan ere, batentzat ezpata den egur zatia, bestearentzat izan daiteke etxea eraikitzeke zutabea edo arrantzarako kainabera. Hala ere, azpimarratu du haurrak ez daukela askatasun horretara ohituta eta askotan kostatu egiten zaiela librean jolastea.

Gatazka gutxiago ere sortu ohi da horren egituratuta ez dauden espazioetan, bai eta zarata gutxiago ere. Jolastoki askotan ikusitakoan jarri du arreta Martinek. "Parkeetan arau asko daude. Txirristadara eskaileretatik igo behar da beti, bestetik jaisteko. Ez dezala inork kontrako bidea hartu igotzeko, bestela laster dira haserreak sortu haurren edota gurasoen artean. Baina naturaguneetan aldamenekoarekin borroka egiteko beharrik ez dute haurrek espazioa lortzeko, eta helduen kontrol zorrotzik ere ez". Hala ere, Naiara Martinek garbi laga du arau batzuk izango direla, gutxieneko batzuk: "Ez minik eman, ez minik hartu eta era horretakoak. Sarreran beti gogoraziko ditugu. Gaur egun ere beti egiten dugu hori Atxutxiamaikan.". Aisia hezitzailearen balioak zainduta egongo dira eta haurren behar emozionalak ere bai. Horretarako, iristiaz batera nahiz agurrekoan, taldean batu eta nola dauden galdetuko diete hezitzaileak, zer egin nahiko luketen aztertzeke edota gustura sentitu diren jakitzeko. Haien nahiak aintzat hartuko dituzte, bai eta bestelako behar emozionalak ere.

## "Gora eta behera ibiliko dira, saltaka, hamaketan zintzilik, arrastaka... psikomotrizitatea lantzeko aukera aparta izango dute"

Naturak aukera ematen du gaitasun asko garatzeko. Basoan jolasean ari direla esperimendazioa, jolas sinbolikoa eta ikerketa lantzen dute. Batean, urarekin jolastuko dira, hurrengo orbela baten arituko dira, lokatzetan eskuak loitzen beste batean edota lorak eta animaliak behatzen. "Naturaren zikloak euren begiz ikusiko dituzte eta garaian garaikoa zer den ikasiko dute, inork azaldu beharrik gabe". Bizipenetatik ikasiko dute, inguru osasuntsu batean.

Era berean, basoak garapen motorra eta mugimendua leku itxi askotan baino hobeto garatzeko aukera emango die, bai eta adimen espaziala lantzea ere. "Mendian gora eta behera ibiliko dira, saltoka, hamaketan zintzilikatuta, arrastaka... psikomotrizitatea lantzeko aukera aparta izango dute". Bestelako onurak ere



ikusten dizkiote basoan jolasteari Katamixarren basoaren sustatzaileek. Eta nagusiki bat aipatu dute naturak ematen dien sosegua. "Antsietatea eta estresa murrizten dira, eta funtzio kognitiboak lantzen, memoria, arreta eta kontzentrazio gaitasuna esaterako", zehaztu du Martinek.

Ez dute halako konturik ikusten herriguneko parkeetan. "Herriak ez daude umeentzat eginda; langileentzat pentsatuta daude, helduon begiradatik diseinatuta", azpimarratu du Naiara Martinek. "Jolastokiak gurasoentzat daude eginda, umeentzat baino gehiago", gehitu du Rubiok. Txirristak, ziburuak edo jolaserako antzerako estruktura daude gehienetan, kautxoakoa da lurra, biguna, eta inguruan itxura bat ez duen parkeak eserlekuak ditu, "gurasoek kontrolatuta izan ditzaten uneoro haurrak". "Ixituraren barruan" jolasten dira haurrak, kalea ukatu zaielako. "Beldurraren gizartearen", kontuak dira. "Beldurraren gizartearen arrisku guztiak kentzen ahalegintzen da, baina benetan arriskuekin bizitzen ikasi behar dute haurrek. Horrek lagundu egingo dielako euren gatazkak eta beldurrak gainditzen", nabarmendu du Atxutxiamaikako arduradunak. "Garbi dago. Egungo parkeak ez daude haurren nahi eta beharren arabera diseinatuta. Umeari aukeratzeko emango bagenio, naturako elementuak aukeratu litzuzke gehienetan. Izan daiteke natura hila: egurra eta halakoak, baina natura bizia bada ematen dioguna askoz ere hobeto.", gehitu du Rubiok. Zuhaitzetara igo nahiko du haurrak edo oreka landu enbor gainetan hara-hona ibilita, eta beldurtuko da akaso gurasoa, baina hezitzaileek argi dute: Komeni da lagatzea, psikomotrizitatearen garapen egokirako onuragarria delako. Naturala dena indartuko dute Katamixarren basoan, eta naturalak direnen artean aipatu dute honakoa: ezberdinen arteko harremanak sustatzea, ikasitako genero arauak baztertuta.







## ▶ OIER GURRUTXAGA PILOTAKO EPAILE OHIA ETA MUSIKARIA

*Oier Gurrutxaga, gitarra eskuetan, Debako frontoian.*

# “Aurpegira begiratu ere egin gabe jakinarazi zidaten kaleratu egin nindutela”

Kirola eta musika dira Oier Gurrutxagaren (Elgoibar, 1976) afizioetako bi, eta biak uztartu zituen oraintsu kaleratu duen 'Ez aitzaki ta ez atxiki' abestian. Pilota munduan azkenaldian izan diren lan gatazkak eta injustiziak salatzen ditu abestian, eta baita bere kaleratzea ere, urtebete inguruan pilota epaile lanetan aritu ostean kaleratu baitzuten. Horren inguruan eta epaileen lanaren nondik norakoez berba egin dugu berarekin.

- ASIER ORBEA -

♦ **Hasi gaitzen bukaeratik. Pilota epaile lanetan aritu zara profesioletan, kaleratu zaituzten arte. Kontaguzu zer gertatu den, zein da zure bertsioa?**

Aurpegira begiratu ere egin gabe jakinarazi zidaten kaleratzea; bat-batekoa izan zen. E-posta bat jaso nuen zapatu gau batean, 23:00etan: 'kaleratuta'. Nik argi daukadana da aste-bete lehenagoko gertakari batekin duela zerikusia kaleratzeak. Partida berezi batean aritu nintzen epaile Donostian. Baiko eta Aspe enpresetako lau aurrelarik jokatu zuten elkarren aurka. Laso eta Aimar Olaizola batetik, Aimar atzelari modura. Eta bestetik, Altuna eta Irribarria, azken hau atzean. Jendez gainezka zegoen frontoia, ikusmin handia sortu zelako. Partidak, baina, ez zuten kolorerik, 12-2ko emaitzarekin aurreratu zirelako Irribarria eta Altuna. Irribarria indartsu zegoen sasoi hartan eta bere pilotakadekin errebote aldean zuen uneoro Aimar. Hori ikusita, Baikoko intendentea den Pablo Berasaluzek aurrelari jartzeko proposatu zion Aimarri. 'Que vergüenza, que vergüenza,

zer esango dute ikusleek' esan zion Aimarrek. Bera eta Irribarria atzelari ikustea baitzen neurketa hark zuen erakargarriena. Takilakoa ere asaldu zen hori entzutean, kartelean Aimarrek atzelari jokatu zuela jartzen zuela ohartarazi zigun, eta hori ezin zela aldatu. Sortu zen iskanbila Aspeko intendente Jon Apeztearen belarrietara ere ailegatu zen. Pablari [Berasaluzek] behin eta berriro errepikatu nion bazegoela Aimar atzetik aurrera pasatzeko aukera, araudiak horretarako aukera ematen duelako. Ez zuten ezer aldatu, besteengandik presio handia jaso zutelako. Une horretan Apezteak, ziurrenik bere gaintetik dituen Inaxio Errandonea Aspeko zuzendari komertzialarekin eta Vidarte [Fernando Vidarte], Aspeko nagusiarekin, telefonoz hitz egin eta gero, honakoa esan zidan: 'Tienes bronca del jefe'. 'Ugazaba? zurea izango da' erantzun nion, ez nirea. Inguruan zeuden pilotazale eta pilotariak aztoratu zituen nire erantzunak, eta marmar handia sortu zuten nire hitzek. 'Entzun al duk zer esan dion?', eta halakoak entzun nituen.

#### ♦ Epailen lana araudia betearaztea da baina.

Bai. Nik Eskuzko Pilota Enpresen Ligaren interesak eta araudia defendatzen ditut epaile nabilenetan. Liga horren barruan daude noski Baiko zein Aspe pilota enpresak, baina Vidarte ez da nire nagusia, nahiz eta gertatuak gertatu... badela ematen duen. Kontua da, zeharo galduta zirudien partida irauli zutela Aimarrek eta Lasok. Tanto batean atzetik ibili zen Laso eta ondo eutsi zion Iribarriari. Hori ikusita, tantoa egin ostean, Aimarrek pilota hartu eta berak egin zuen sakea. Sakea egitera zihoanean korredore batek geldiarazi zuen ia, korredore batek!. Markagailua berdintzea lortu zuten, eta apustulariak larritzen hasi ziren, egindako apustuak kubritzen, dirurik ez galtzeko. Gutxigatik, baina Altunak eta Iribarriak irabazi zuten partida hura. Partida ikusgarria irten zen azkenean, baina honakoa da nire galdera: Zer nahi dute enpresek: ikuskizuna ematen duten partidak izatea eta ikusleak gustura lagatzea ala beraien lau apustulariek une txarrik ez pasatzea? Partida hori jokatu eta astebetara kaleratu ninduten. Epailen lana araudia betearaztea dela denen aurrean defendatu nuelako eta enpresako buruak ez direla nire ugazabak denen aurrean esateagatik.

#### ♦ Kaleratzearen berri eman zizutenean zer egin zenuen? Azaldu zenien zure bertsioa?

Ba hitz batean azaltzeko hondoa jo nuen, zulo batean aurkitu nintzen. Une hartan ez nuen protestarik egin edo ahotsik altxatu, eurek dutelako inor kontratatu edo kaleratzeko eskumena. Pozik eta gustura ari nintzen epaile lanean. Lotura handia eskatzen duela zen traba bakarra. Irakasle lanarekin uztartu behar nuen, eta asteburu eta jai egun guztiak okupatuta nituen. Gainera, esperientzia handirik ez nuen arren, ez nintzen gaizki moldatzen. Epaitzeko tantorik zailenak, eztabaidatsuenak, apuntatu egiten nituen eta gero telebistaz ikusi, asmatu nuen ala ez jakiteko. Ia denetan asmatzen nuen. Berez, ez da lan zaila, baina bai ardura handikoa. Zure erabaki batek pilotari baten edo bestearen buruan jarri dezake txapela, edo milaka euro batera edo bestera bidali. Presio handia nabaritzen da pilotalekuan; eta, gainera, apustu handienak egiten dituztenak lehen lerroan eserita egoten dira normalean.

#### ♦ Zer egin behar da pilotako epaile izateko?

Beharbada ez naiz ni egokiena galdera horri erantzuteko. Bide bat egon badagoen arren, une oso berezi batean ailegatu nintzen ni. Lehen, pilota federazioek ipintzen zituzten epaileak. Federazioen eta enpresa pribatuen artean hainbat arazo egon ziren. Kexatu egin ziren, Gipuzkoako epaileak bereziki, eta greba moduko bat egin zuten. Epaileek pilota partidetara sartzeko dituzten paseekin izan zuten desadostasunik handiena, soldatak eguneratzea ere eskatzen zuten arren. Esku Pilota Enpresen Ligako (EPEL) enpresek, Aspek eta Baikok, pilota profesionala eta amateurra elkarrengandik erabat banandu zituen erabakia hartu zuten orduan: euren epaile propioak hasi ziren jartzen pilota jaialdi profesionalean, federazioetatik aparte. Orduan, 2019ko martxoan, EPEleko enpresek euren epaile multzo

partikularra aukeratzeko casting moduko bat zabaldu zuten. Egunkarian ikusi nuen nik epaileak behar zituztela zioen iragarria, eta halaxe eman nuen izena.

#### ♦ Zenbat denbora egin zenuen epaile lanetan?

2019ko apiriletik 2020ko udara arte. 'Ez aitzaki eta ez atxiki' kantuaren letran diodan moduan, astebururo astebururo Gipuzkoako frontoi denetan ibili nintzen, Astelenan izan ezik, Bizkaiko epaileak ipintzen dituztelako Eibarren.

*“Pilotariak elkar gurutzatzen direnean ikusten dut epaileentzat erabakiak hartzeko zailtasun handiena edo hutsunea”*





### ◆ **Epaitu beharreko gauzetatik zer egiten zitzazun zailena; marrak zaintzea, bi botekoa...?**

Pilotariak elkarri traba egiten diotenetan edo elkar gurutzatzen direnetan ikusten dut epaileontzat erabakiak hartzeko zailtasun handiena edo hutsune handiena. Horietan epaileak ez dauka aginterik legea ezartzeko. Askotan ikusi ditut halakoak, pilotari bat oso berandu gurutzatu eta pilota jotzera doan pilotariak pilota gaizki jotzea edo galtzea ere bai, besteak ondo ikusten laga ez diolako. Edo beste kontu bat: buelta ematen denean, zergatik atera behar du sakea zer bait gaizki egin duenak? Nik uste tantoa kendu beharko litzaiokeela gaizki egin duenari, eta horretarako epaileei erabaki hori hartu ahal izateko agintea eman behar zaie. Araudia betearazteko ahalmen gehiago behar du epaileak. Horregatik ikusten dira gero eta gehiago pilotarien arteko azken orduko gurutzada horiek, eskandaluzkoak batzuk. Epaileak badu falta emateko aukera, araudian jasota dago-eta. Baina, sekula inor ez da ausartu falta ematera, eta nire ustez, pauso hori ematera ausartzeko arduradunen babesa behar dute. Pilotariak argi izango lukete: azken orduan gurutzatuz gero, galdu duzu tantoa. Bi botekoa asmatzea ere ez da erraza, batez ere txokoan direnean, pilotariaren gorputzak ez duelako lagatzen botea ikusten. Kokapena garrantzitsua da, eta hori esperientziarekin eskuratzen da, eta pilotan jokatu izanak ere laguntzen du, frontisetik datorren pilotak botea non eman dezakeen aurreikuszeko. Egia esan, epaile asko ez dira larregi mugitzen, ni beti saiatzen nintzen pilotarekin erreferentzia bisuala izaten, anguloak bilatzen. Txapa azpiko pilotakadekin asmatzea ere ez da ematen duen bezain erraza, abiadura bizian doalako pilota eta batzuetan ez delako txaparen soinurik entzuten frontoian. Nire ustez horiek errazagoak dira atzeko epailearentzat, aurrekoaren arduraren arren. Bi epaileen artean zaindu beharrekoa da eta biek elkar ondo hartzea komeni da.

*“Teknika eta koordinazio handia behar dira esku pilotan aritzeko”*

### ◆ **Futbolean erabiltzen duten VAR sistemak lekua izango luke pilotan?**

Bai. Probatu ere egin zuten, eta ezarri ez badute garestiegia delako da. Kamera asko behar dira. Hala ere, badakit ETBk mahai gainean jarri zuela bere kamerekin hartutako irudiak epaileek erabiltzeko aukera.

### ◆ **‘Ez aitzaki eta ez atxiki’ abestia kaleratzea gaunditzeko edo sortu zenuen?**

Banekien epaile lanarena ez zela betiko izango, ipurterrea bainaiz eta bidaiatu ahal izateko aukera mugatzen zidalako. Musikari eskaintzeko denbora ere kentzen zidan, eta denbora hori berreskuratu ostean sortu nuen abestia. Oso berezia izan da nire



tzako, partiturrekin eta pianoarekin kantu bat konposatu dudana estreinako aldia izan baita. Prozesu polita izan zen. Nire ikasle izandako Martinak, Debrass taldeko kideak, jo du tronboia abestirako, eta berari partituras eman ahal izateak, musikariaren hizkuntza horretan komunikatu ahal izateak, asko bete nau, aberasgarria izan da oso. Abestiaren izenburuak badauka esanahia. EPELe-koek ez ziguten epaile izateko ikastarorik eman, araudiari buruzko nozio batzuk irakatsi zizkiguten ordu batzuetako saioan. Hor esan ziguten atxikiekin ez burua galtzeko, alegia, ez tantorik galdutzat emateko atxikiengatik. Deigarria egin zitzaidan epaile izan behar duen bati hori esatea: ‘ikusten dudana epaitu beharko dut ba, ezta?’. Ilizatuta gelditu zitzaidan.

### ◆ **Nondik datorkizu pilotarekiko afizioa?**

Esango nuke kirolzalea naizela oro har, baina euskalduna izanda eta frontoiez inguratuta bizi garenez, betidanik gustatu izan zait euskal pilota, modalitate guztiak gainera; remontera -zesta punta bera baino gehiago-, pala, paleta... baina eskuzko pilota, *amigo!* Teknika eta koordinazio handia behar dira eskuz aritzeko. Jose Javier Zabaleta ikustea besterik ez dago; dantzari eta boxeolari baten arteko kirolaria ematen du. Eta Xala batek zuen teknika ere izugarria eta ikusgarria zen... Hasi hanka puntetatik, aldaka gero eta pilotari jo behar zaion unean kolpea eman, mugimenduak perfektua izan behar du, pilota ibiliko bada. Izugarri estetiko da esku pilota. Eta teknika garrantzitsua den arren, teknika perfektua eduki gabe ere egin daiteke tantoa, aurkaria engainatuz. Musean moduan, ziria sartu behar zaio aurkariari eta jokorekin parte hori ere asko gustatzen zait.

### ◆ **Heziketa Fisikoa ikasi zenuen Gasteizko IVEF-SHEEn eta pilotari buruzko lan bat egin zenuen, ezta?**



Goi Errendimenduko Master bat egin nuen eta eskuz bana-kako lehietako sakeari buruzko lana aurkeztu nuen Master Bukerarako tesinan. Sakea jokaldi oso garrantzitsua delako egin nuen nire lana lehen pilotakada horren inguruan, orain lehen bezain garrantzitsua ez den arren. Izan ere, garrantzi hori gutxitzeko pasako marra ere aurreratu egin dute, eta ia pilotari gehienak airez sartzen dira orain. Lehen sakea ondo egiteak abantaila handiagoa ematen zuen. Nire lanean egoera itxi bat moduan hartzen nuen sakea, saskibaloian jaurtiketa libre bat den moduan, aurkariak eraginik ez dutelako. Beti da berdina; oso entrenagarria hortaz. Hori aldatu egin zen sakeari airez erantzuten hasi zirenean, aurkaria non dagoen begiratu edo asmatu behar baitu orain sakea egitera doanak eta horren arabera modu batera edo bestera egin sakea. Autohipnozirako teknikak aipatzen nituen nire lanean, sakea hobetzeko. Harreta zerbeitetan fokalizatzearekin lotuta dago. Sakea egin aurretik pilotariak egiten dituzten botetxo horiek dira kontzentratzeko pizgarriak.

◆ **Pilotarekin batera musika da zure beste afizioetako bat. Brosoma produktions sortu zenuen orain gutxi Deban. Azaldu-guzu zer den.**

Musikan hasiberriak direnei euren abestia edo proiektua aurrera ateratzen laguntzeko sortu nuen Brosoma. Letrekin ez naiz sartzen, baina gainerako ekoizpen prozesuan laguntzen diet. Instrumenturen bat behar badute, doinuak, oinarriak, abestien errepikak sortzen eta antzerakoetan laguntzen diet. Gaztetan punk rokean hasi nintzenetik era askotariko estiloak jorratu ditut musikan. Punk-roketik metalerantz egin nuen lehenik, house-a, flamenkoa, bluesa eta rapa ondoren. Ibilbide horri esker, musikaren ikuspegi orokorra daukadala konturatu nintzen, eta gaitasuna dut hasibe-

rirei beraien estilo propioa bilatzen laguntzeko. Konturatu naiz kaso egiten dietela nik eginiko gomendioei eta emaitza ikusten dutenean arrazoia ematen didatela, eta hori ez zait bizitzako arlo askotan pasatzen. Honetarako balio dudala konturatu naiz (kar, kar, kar).

◆ **Kontaguzu zein diren orain arte zure eskuetatik pasa diren artistak.**

Hip-hop musika egiten duen Deskonozido musikari debarra da bat; *Perdon Madre* abestian lagundu nion. Rablondy donostiarra da beste bat, potentzial handia duen raplaria, ondo abesten eta entonatzeko baitaki. Hip hop melodiko antzeko batera iritsi ginen bion elkarlanari esker, eta *La lucha armada* abesti potentiaz ere harro nago.

---

*“Barru-barrutik bizi izan dut Txiki Eguna eta nire omenaldia egin nahi diot. Abesti bat sortzen ari naiz”*

---

◆ **‘Dido Mod’ izen artiskikoaz ari zara zu zeu.**

Hipster inbasio moduko bat bizi gurea-eta, gogaituta, rap estiloko abesti bat sortu nuen. Okerreko eztarritik sartu zitzaidan hipsterren moda hori eta nire izen artistikoa ere hortik dator, *Jodido Modernillo*tik. Betidanik gustatu izan zaizkit bertsoak, eta errimak ere azkar ateratzen zaizkit, sagardotegietan bereziki. Rapa, aldiz, inoiz ez da izan nire estiloa. Letra luzeegiak atera zitzaikidalako jo nuen rapera, letra guztia sartu ahal izateko. Hipsterrei eskaini nien lehen abestia, *Todo es lo mismo* izenekoa. Rap edo hip-hop estiloko abestia izan arren, gitarra flamenkoaren doinuek pisu handia dute, flamenkoa oso garrantzitsua izan baita niretzat azken urteetan. Izenen esanahiez galdetu didazunez, jakin nahi duzu Brosoma nondik datorren?

◆ **Esan, esan, nondik dator Brosoma izena?**

Bi eleberririk futuristetan du jatorria Brosoma izenak: Aldous Huxleyren *Bai Mundu Berrira* eta George Orwellen *1984* eleberririk. *Big Bro* edo anaia handia terminoa asmatu zuen Orwelek. Soma, berriz, diruaren orde ez erabiltzen zuten droga aluzinogenoaren izena da, Huxleyk irudikatu zuen mundu distopikoan. Behin irakurri nuen, eta erabat ados nago, aurreko mende hasieran idatzitako eleberririk izanagatik bete-betean asmatu zutela gure gizartea dena, bizi dugun errealitatea. Pandemia aurreko urteetaz ari naiz. Batetik, kontrolpean bizi gara, kamerez inguratuta; eta, bestetik, mugikorren eta sare sozialetako bizimodu birtualaren liluratik askatu ezinda, horiek dira gure soma.

◆ **Zein da zure hurrengo proiektua?**

Txiki Egunari buruzko abesti bat eta bideoklip bat sortzen ari naiz. Barru-barrutik bizi izan dudana eguna da, eta nire omenaldia egin nahi diot. Txiki Egunari buruzko irudiak, argazkiak eta bideoak, behar ditut eta eskertuko nituzke niri bidaltzea nire helbidera: [oiergurrutxaga@gmail.com](mailto:oiergurrutxaga@gmail.com)





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**A**parkatuta zeuden autoetako ispiluak puskatu dituzte: "Ikastolako aldapan aparkatuta zeuden zenbait autoetako ispiluak puskatu dituzte, eta ez da lehenengo aldia. Nahikoa da!".



**M**eliton zubitik lñigez Karkizao kalerako bi-degurutzera oso arriskutsua da: "Meliton zubitik lñigez Karkizao kalera igotzeko tunelean ikusmena mugatua dago, eta oso arriskutsua da, batez ere, Albitxuriko aldapan behera datozen auto eta kamioiak oso azkar etortzen direlako. Goitik behera datozen ibilgailu horien abiadura mugatzeko neurriren bat hartu, eta ikusmena nolabait hobetu beharko litzateke".

**Z**ergatik egingo du Biraka taldeak kurtso amaierako jaialdia publikorik gabe?: "Pandemia egoerak ahalbidezu zuenetik makina bat ikuskizun antolatu dituzte Herriko Antzokian, Covid-19a sahiesteko babes neurriak hartuta: asteburero dago zinea, kontzertuak egin dira, antzerkiak... Zergatik umeen jaialdia publikorik gabe? Gizartea normaltasunera itzultzen ari den honetan, ez al dago beste aukerarik? Beharrezkoa balitz, ezingo litzateke jaialdia bi egunetan egin taldeak banatuta?". Josu Mujika Birakako arduradunak aitortu du ez dela erabaki erraza izan, eta gaiari buelta asko eman diotela: "Penarik handiena geuk daukagu, baina iruditu zaigu publikorik gabe egitea dela egokiena, jende pilaketak sahiesteko. Ezin ditugu Herriko Antzokiko aldagelak erabili, eta publikoa sartuko bagenu, umeak kanpoaldean pilatu beharko genituzke, horrek daukan arriskuarekin. Jaialdia bera ere bi zatitan egingo dugu, antzokian bertan ez daitezen ume guztiak batera egon. 200 ume ditugu, ume asko dira, eta arriskuak gutxitzea erabaki dugu, pena handiz. Entseguak ere banatuta egingo ditugu, ahalik eta ume multzo txikiak izan daitezen. Ez dezala inork pentsa hausnartu gabe hartutako erabakia izan denik. Aukera desberdinak baloratu ditugu, eta guztion segurtasunagatik, zuhurtziaz jokatzera erabaki dugu. Datorren urtean espero dugu egoera bestelakoa izatea".



**E**skerrik asko Lizagasar Sagartokiko ardura-dunei: "Jubilatuak Biltokiak antolatuta, Lizagasar Sagartokixa bisitatu genuen joan zen asteburuan, eta oso gustura ibili ginen. Eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki Asierri eta Aneri, eskaini ziguten tratu bikainagatik, eta zoriondu nahi ditugu, sortu duten proiektu ederragatik. Zortetik onena opa diegu".



Eire Vila



## Jone Olaizola



Looren hilabeteen sartuta gaude, Loraillan hain zuzen ere, eta garai honetako eguraldi aldaketek ernegatzen gaituzte; era berean, beti jokua ematen digu horretaz hitz egiteak: 'Gaur fresko samar dago' 'aste-buruan eguraldi okerragoa egingo omen du', 'gaurko beroa ez da parte onekoa', 'mendiak oraintxe lehor-lehor daude' eta horrela segitzen dugu astea joan eta astea etorri. Egia da hilabete hau bereziki sorpresaz beteta etortzen zaigula eguraldiari dagokionez. Esaera da "maiatzean erdia hotz, eta erdia bero", eta klima aldaketa gorabehera, oraindik ere esaera horrek bete-betean deskribatzen du hilabete honetan bizi ohi duguna. Garai batean, kukua entzutea zen udaberriaren seinaleetako bat; a ze ilusioa kukua entzun eta poltsikoan pezeta batzuk izanez gero, urte osorako paga ziurtatuta! Gaur egun, esan daiteke txirrindulariek ematen dutela udaberriaren iritsieraren berri. Kaskodunak errepidera irteten ikusten ditugunean, iritsi da udaberria! Edo, zein urtarotan bizi garen jakiteko beste modu bat izan daiteke Google-i galdera botatzea, hark dena omen dakielako. Hiritarrok naturari bizkarra emanda bizi gara, eta horrek naturaren zikloez ez jabetzera eraman gaitu, baina ez du esan nahi ziklo horiek ez daudenik. Hirigunetik pixka bat urruntzea besterik ez dago, oraintxe natura bere jantzi dotoreenaz ikusteko, transformatzen eta azalberritzen ari dela nabaritzeko. Ikusten da lore eta animaliei nola eragiten dien udaberriak, barne-barnetik bizi baitituzte aldaketa horiek; eta gu ere mundu bizi honetako parte izanda, ez ote gaude aldaketa indartsu horiei lotuta? Ziur aski, aldaketak bizitzaren parte direla jabetu beharko genuke, nahiz eta batzuetan erresistentziak jartzen saiatzen garen eta onartzea kostatu egiten zaigun.

*"Hiritarrok naturari bizkarra emanda bizi gara, eta horrek naturaren zikloez ez jabetzera eraman gaitu, baina ez du esan nahi ziklo horiek ez daudenik"*



# ▶ MAITE ARROITAJAUREGI 'MURSEGO'

MUSIKARIA



“Publiko mota desberdinentzako emanaldia da, eta kanta batekin identifikatzen ez dena, beste batekin identifikatuko da”

Mendaroko kultur eskaintza aberasteko 'Begiekin entzutekoak' zikloa antolatu dute Gararock taldeak eta Mendaroko Udalak, eta ziklo horren barruan emango du kontzertua Mursegok domekan. Maite Arroitajauregi (Eibar, 1977) da Mursego. Umetatik jaso du musika etxean, eta musikak bizi du. Pianoa jotzen hasi zen, baina benetan bere atentzioa piztu zuen instrumentua biolontxeloia izan zen. Musika irakaslea da, eta horrez gain, musikagilea. Hainbat musikarirekin kolaboratu izan du, eta orain bakarka dihardu. Domekan bere azken lana aurkeztuko du Mendaroko San Agustin kulturgunean: 'Lapur Ariketak'. 19:00etan hasiko da emanaldia.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ **Goya saria jaso duzu 'Akelarre' filmeko soinu bandagatik, eta orain, 'Txopitea eta bakea' errekonozimendua eman dizu Eibarko Udalak. Zer suposatu dute sari horiek zuretzat?**

Hasteko eta behin esan nahiko nuke Goya saria sari kolektibo bat izan dela. 26 urtean bigarren andrazkoak izan gara soinu banda onenaren sailean irabazten, eta niretzako izan da emakume konpositoreei egindako aitortza bat. Jendeak oso pozik hartu du, eta herrian ere jende askok transmititu dit bere poza. Urte askotako lanari egindako errekonozimendua izan da. Urte asko daramatzat lanean, eta ondo etorri da saria, oso pozik hartu dut, baina ez diot bestelako garrantzirik ematen sarirari berari.

♦ **Umetan hasi zinen musikan, eta biolontxeloia aukeratu zenuen. Ez da ohikoena izaten instrumentu hori aukeratzea umetan. Zerk piztu zizun atentzioa?**

Ama musika irakaslea zen, ahizpak pianoa jotzen zuen, anaiak flauta, aita ere oso musikazalea da... eta ni ere pianoa jotzen hasi nintzen umetan. Instrumentu polifonikoa da, eta musi-

karako oinarri moduko bat ematen du. Gure etxean denok jo dugu pianoa modu batean edo bestean, baina 9 urte nituela gurasoei esan nien nik biolontxeloia jo nahi nuela. Ez dakit zergatik, baina halaxe izan zen. Gurasoeekin joaten nintzen kontzertuak ikustera, eta entzunda neukan txeloaren soinua. Esaten dute txeloaren tinbrea giza ahotsaren oso antzekoa dela, eta agian horrek piztuko zuen nire arreta, baina ez dakit zein izan zen txeloia aukeratzeko benetako arrazoia.

♦ **Musika ikasketak egitea aukeratu zenuen ondoren. Argi zeneukan zure bidea.**

Ez pentsa! COU bukatu nuenean ez nekien oso argi zer egin. Musika, Arte Ederrak, Artearen Historia, Diseinua... sormenarekin lotura zeukan zerbait egin nahi nuen, baina zalantzak nituen. Azkenean kontserbatorioan jarraitzea erabaki nuen, eta ikasketak bukatu ostean, irakasle lanetan hasi nintzen.

♦ **Irakasle izateaz gain, hainbat musikarirekin aritu izan zara lanean, eta orain, bakarka ari zara. Nola eman zenuen jauzi hori?**

Jauzi nahiko naturala dela esango nuke. Beste musikariek konlaboratzerakoan konponketa guztiak beraien abestietara moldatu behar dira, eta zuretik egin arren moldaketa horiek, kantuak beti dira beste batzuenak. Esate baterako, Anariarekin urte askoan ibili naiz, eta nik egiten nituen nire konponketak, baina kantak bereak ziren. Eta halako baten iritsi zitzaidan nire musika eta nire kantak egiteko unea; nirea zen zerbait sortzeko beharra sentitu nuen. Pedal bat erosi nuen eta gauza txikiak egiten hasi nintzen. Poliki-poliki joan nintzen proiektuak osatzen, eta gaur arte! Lehen neukan pedalaren hirukoitza dena erosi nuen, eta gauza landuak goak egiten hasi nintzen. Beti saiatzen naiz eboluzionatzen.

#### ♦ Egiten duzuna desberdina da, berezia. Nola erantzuten du publikoak estreinakoz ikusten duenean Mursego oholtzan?

Ez dut uste egiten dudana hain desberdina denik. Egiten dudana baino gehiago, egiteko modua da desberdina. Bakarrik egoten naiz oholtzan, txelista naiz, eta tresna desberdinak erabiltzen ditut, musika estilo desberdinetako kantak sortzeko. Horrek guztiak egiten du desberdina emanaldia; ohiko formatutik irteten den emanaldia da, baina ikusleak dagoeneko ohituta daude loperen efektuak entzutea, gaur egun musikari askok erabiltzen dutelako. Lehen gehiago galdetzen zidaten nola egiten nituen soinua. Dena dela, batzuetan saiatzen naiz makina alde batera laga eta kantuaren esentzia bilatzen. Kanta bat ona denean, berdin du makinekin abestu edo makinarik gabe, kantuak ona izaten jarraituko duelako. Baina niri gustatzen zait kanta batzuk makinarik gabe defendatzea.

#### ♦ Domekan Mendaron emango duzu kontzertua. Zer eskainiko duzu?

*Lapur ariketak* izeneko emanaldiarekin nabil azkenaldian, eta hori eskainiko dut Mendaron. Bertsioak dira, baina mota desberdinetakoak. Hartu ditut, adibidez poema bat, film bateko fotograma bat, liburu bateko pasarte bat, koadro bat... eta nire berrirakurketa moduko bat egin diot bakoitzari. Denak balio du inspiraziorako. Mikel Laboak egiten zuen *Komunikazioaren komunikazioa* saioko zati bat ere hartu dut, hizketan egiten zuen atala. Mikel Markezen *Zure begiek mintzen naute* abestia Lorena Alvarezen *Si tú eres mi hombre* abestiarekin nahasten dut, batakin oinarrian duelako maitasun erromantiko patriarkala eta besteak kontrakoak. J. Martinak egin zuen Camaron de la Islaren *Viejo mundo* abestiaren bertsioa ere hartu dut, nire bertsio propioa sortzeko. Kasu horretan, lapurretaren lapurreta izango litzateke. Saio berezia da, eta denetik dauka apur bat: umorea, aldarria... Publiko mota desberdinentzako emanaldia da, eta kanta batekin identifikatzen ez dena, beste batekin identifikatuko da.

#### ♦ Nola bururatu zitzaizun proiektu hau sortzea?

Harkaitz Canok mintegi bat eman zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, literatura mutanteari buruzkoa. Esaten zuen literatura dagoeneko ez dela literatura bakarrik, hori baino gehiago dela. Zinean ere gauza bera gertatzen da: gaur egun nahasketak egi-

ten dira, esaterako, fikzioa eta dokumentalaren arteko hibridoak asko egiten dira. Nahiz eta diziplina bera izan, hizkuntza desberdinak erabiltzen dira. Mintegi horretan parte hartzera gonbidatu ninduen Canok, musika zabalduari buruz zerbait egin nezakeelakoan, eta orduan bururatu zitzaidan *Lapur ariketak* egitea. Proiektu honen tesia da sortzaileok hartzen ditugula inspirazio iturri desberdinak, eta gero, gure egiten ditugula. Picassok esaten zuen artista gustu oneko lapur bat dela, eta horretan oinarrituta dago proiektua. Emanaldia Harkaitz Canoren zita batekin hasten da: "Nire idazle esperientziatik esan dezakedan bakarra da damutzen naizela idatzitakoaz, baina ez naizela damutzen kleptomano izaerarekin idatzi nuenaz". Nolabait esan nahi du inoiz ez zarela damutuko lapurtutako horretaz, lapurtutako hori ona delako edo zerbait ikusi diozulako lapurtu duzulako. Emanaldia entzuteko izateaz gain, oso bisuala da. Gorputz mugimendua ere asko erabiltzen dut kantei laguntzeko. Nik gozatu egiten dut, nik aukeratutako elementuetan oinarritutako emanaldia delako, eta nik gozatuta, uste dut ikusleak ere gozatzen duela.

#### ♦ Esan daiteke orduan lapurretan ibili zarela proiektu honetan?

Bai, hori da. Horregatik dauka izena ere *Lapur ariketak*. Handik eta hemendik aurkitu ditut inspirazio iturriak eta nire egin ditut.

Bertsioak ere ez dira, oinarriak hartu eta gauza berriak sortu ditudalako, nireak. Elementu horiek guztiak aitzakiak izan dira nik nahi nuen sortzeko.

#### ♦ Mendaro herri txikia da. Zein espektatiba dituzu?

Ilusioz nago. Ina eta konpainia lagunak ditut, eta sarri egoten gara elkarrekin. Irazokiren kontzertuan ere egon ginen duela gutxi, eta harreman ona daukagu. Mendaroko aretoa ere oso polita da, eta gustatzen zait herria.

#### ♦ Zure emanaldia moldatu behar izan duzu koronabirusagatik?

Bai, jende gutxiago sartzen da aretoetan, eserita ikusteko emanaldia da, jendea maskararekin dago... Beste artista batzuekin komentatu izan dut, eta gure ustez, pandemiak urduritasuna areagotu du, presio handiagoa sentitzen dugu, eta ni neu behintzat oso urduri jartzen naiz. Jende gutxiago dago, eta edozein akats gehiago nabaritzen dela iruditzen zait. Horrez gain, ikusleen aurpegiak ez ikustea oso hotza da. Txertaketa aurrera joan ahala espero dugu aire librean behintzat musukoa kendu ahal izatea.

#### ♦ Aurrera begira, zein proiektu dituzu eskuartean?

Gaur bertan kontzertu berezi bat emango dugu Eibarko Euskal Jaian Kokein, Mice-k eta nik. Denbora gutxi izan dugu prestatzeko, baina oso polita izango da. Eibarko koplak zaharrak eta kantu tradizionalak hartu eta gure erara moldatu ditugu. Eta horrez gain, *Lapur ariketak* ikuskizunarekin baditut dagoeneko emanaldi batzuk lotuta, filmen bat eta oraindik esan ezin ditudan beste hainbat lan ere bai.

*“Gozatu egiten dut,  
eta nik gozatuta,  
uste dut ikusleak ere  
gozatzen duela”*



## Baserritarren eta artisauen azokak eta musika izango dira aurten Trinitate jaietako osagai nagusiak, Elgoibarren

Trinitate jaiak izango ditugu asteburuan Elgoibarren, baina ez beti-beti-koak. Pandemiara egokitutako jaiak antolatu dituzte Elgoibarren. Mendaron, aldiz, ez dute jairik egingo aurten.

Bihar, hilabeteko azken zapatua da, eta ohi legez, azoka izango dugu, Aita Agirre plazan. 9:00etatik 14:30era bitartean, herriko nekazarien produktuak erosteko aukera izango dugu. Honako hauek parte hartuko dute azokan: Lizundia txabolak, Basarte Soroetak, Txillarrak, Lizagasar Sagartokixak eta Nagorre Dorronsorok. Horrez gain, baina, Debabarrena eskualdeko gaztagileak ere izango dira azokan: Elgoibarko Mausitxa (ardi gazta), Mallabiko Axeleku (behi gazta), Mutrikuko Goienezte (ardi gazta) eta Soralezeko Egotza (ahuntz gazta). Postu horietan erosketa egiten duten herritarrek txartel bana jasoko dute eta otar baten zozketan sartuko dira. Era berean, ganadu azoka ere egingo da arratsaldean, 15:00etatik 18:00etara. Pandemia dela-eta hilabe-



teak dira egiten ez zela, baina Trinitate jaiekin batera itzuliko dira abereak kalera.

Domeka, Udal Txistulari Taldekoek hasiko dute, Dianarekin. Ordu bete beranduago zabalduko dute artisau azoka, Aita Agirre plazan (14:30ean itxiko da azoka), eta 11:30ean meza nagusia ospatuko dute San Bartolome parrokian. Eguerdian, 12:30ean, Udal

Musika Bandaren kontzertua antolatu dute, Kalegoen plazan. Udal Musika Bandak joan den urteko urriaren 18an eman zuten zuzeneko azken kontzertua, Olazaga kiroldegian. Gero, Santa Zuziliako kontzertua eman behar zuten azaroaren 28an, San Bartolome elizan, baina bertan behera gelditu zen, koronabirusaren pandemiak okerrera egin zuelako.

## Aniztasun funtzionalaren gaia hartuta, argazki erakusketa osatu du 'Zubiak eraikiz' egitasmoak



Zubiak eraikiz elkarturako egitasmo gisa sortu zuten Gipuzkoako eta Nikaraguako hainbat enpresa eta elkarte, tartean AMSk eta Elkarhezitzenek, Nikaraguan eta Euskal Herrian aniztasun funtzionala duten lagunekin lan egiten duten elkarteek. Bi kulturen artean sinergiak sortu nahi zituzten eta *Ametsak, amets al dira* dokumentala ere osatu zuten. Pandemiak, baina, hasierako proiektua garai zail honetara egokitzea behartu zituen, eta hortik sortu zen argazki erakusketa hau. Aniztasun funtzionala duten lagunekin lan egiten duten langileek eta zentroetako erabiltzaileek eurek errealitateari egokitzeko egiten duten ahalegina erakusten du erakusketak. Ekainaren 4an zabalduko dute, Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan, 11:30ean, eta bi egunez izango dute ikusgai, ekainaren 6ra arte.

## Haundik duintasunez esan dio agur mailaz igotzeko ametsari

Ezinezkoaren bila joan zen Haundi Hernanira, eta gutxi falta izan zitzaion balentria osatzeko. Mintxetan jokaturako joaneko partida 0-2ko emaitzarekin galdu eta gero, emaitza berarekin amaitu ziren itzulerako neurketako arauzko 90 minutuak zapatuan, Hernaniko Zubipe futbol zelaietan. Oraingoan, baina, elgoibartarren aldeko emaitzarekin. Ibon Makazagak eta Eneko Basurtok sartu zituzten luzapena behartu zuten Haundiren bi golak. Luzapenean Hernanik sartu zuen lehen gola, eta 1-2 jarri zuen markagailua. Haundik penaltiz lortu zuen hirugarren gola, eta 1-3ko emaitzarekin berea zen finalerdietarako sailkapena, kanpoan sartutako golek balio bikoitza dutelako. Luzapeneko azken bost minutuak tentsio handikoak izan ziren eta Haundiko hiru jokalariek kanporatu zituen arbitroak, bigarren goz txartel horiak aterata. Luzapeneko azken minutuan sartu zuten hernaniarrek bigarren gol erabakigarria. Hala, 2-3 amaitu zen partida. Estu eta larri, baina finalerdietarako sailkatzea lortu dute hernaniarrek. Eibarren kontra jokatu dute. Haundik duintasunez esan dio agur liga txapelketari, taldeko arduradunek aitortu duten moduan. "Pena handia izan da, inork uste ez zuenean esku-eskura eduki baitugu finalerdietarako sailkatzea", esan du C.D. Elgoibarko presidente Jon Basurtok. Sentsazio gazi-gozaok laga dizkio kanporatzeak. "Partida amaitu berritan triste nengoen, zuloan, baina pozik era berean, denboraldi aparta egin baitute jokalariek eta entrenatzaileek".



## Calvo neba-arrebak, Gipuzkoako eta Euskadiko igeriketa selekzioekin lehiatu dira



Euskadiko eta Gipuzkoako igeriketa selekzioekin lehiatu ziren asteburuan Iker eta Paula Calvo neba-arrebak; bata Asturiasen, eta, Katalunian bestea. Paulak Eskola-adineko selekzio autonomikoen Espainiako Igeriketa Txapelketan hartu zuen parte, Euskadiko selekzioarekin, Lloret de Mar herrian. 100 metro libreetako proban lehiatu zen eta zortzigarren postua eskuratu zuen, 1:04:79ko denborarekin. Sara Costa igerilari madrildarra izan zen azkarrena (1:00:96), Lucia Martinez errioxarra sailkatu zen bigarren postuan (1:01:30) eta Lucia Sabatè kataluniarrak egin zuen hirugarren (1:03:70). Asteburu berean jokatu zen XXXIV. Villa de Gijón nazioarteko igeriketa txapelketa ere, eta Gipuzkoako selekzioarekin joan ziren hainbat igerilari, tartean Iker Calvo. Lau probatan lehiatu zen: 50 bizkarrean, 50 eta 100 librea eta 200 tximeletan. Hain justu ere, azken proba horretan lortu zuen emaitzarik onena, finalerako sailkatu baitzen. Laugarren postua eskuratu zuen B finalean eta 12. postua sailkapen nagusian. Txapelketa garrantzitsua da Asturiaskoa, Igeriketako Europako Ligarako eta Espainiako Igeriketa Federazioaren Grand Prix zirkuitorako proba puntuagarria baita.

## Udaberri Pilota Sariko bi partida jokatu dituzte gaur Mendaron

Hainbat pilota partidez gozatzeko aukera izango da gaur Mendaroko Goñati pilotalekuan. Udaberri Pilota sariko bi partida jokatu dituzte, 18:30etik aurrera. Lehenengoan, kadeteetako bigarren mailako ligaxkako lehia jokatu dute. Hainbat Iraolagoitia pilotari mendarotarrak eta Ibon Ibarra eibartarrak osatutako bikoteak Andoaino Gazteleku taldeko bikotea izango dute aurkari, Gaztañagak eta Arrillagak osatutakoa. Lau jardunaldi jokatu ostean ligaxkako lehen postuan daude andoaindarrak eta laugarrenengoan Iraolagoitia eta Ibarra. Bigarren partidaren nagusien 1. mailako partida jokatu dute Eibarko eta Lazkaoko pilotariek. Pilota jaialdia borobiltzeko, Mendaroko pilota eskolako pilotarien arteko partidak antolatu dituzte. Eskuz binakako bi partida eta buruz buruko bat jokatu dituzte, 17:00etatik 18:00etara bitartean.





**LANA.....**

**Eskaerak**

Lan bila nabil. Lanerako ordutegi malgua daukat. ☎ 632 915 336

Umeak zaintzeko prest nago arratsaldeetan eta asteburuetan. ☎ 688 883 624

Garbiketa lanak egiteko prest nago: etxeak, portalak, bulegoak... ☎ 612 202 116

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 696 550 356 / 653 863 482

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 643 440 462

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan. Zainketa soziosanitariorako titulazioa daukat. ☎ 632 157 852

Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ordutegi malgua. ☎ 617 571 210

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua. ☎ 630 915 031

**Eskaintzak**

Jangelarako zerbitzari euskalduna behar da Elgoibarko taberna batean. ☎ 943 741 230

**BESTELAKOAK.....**

Lambretta etxeko motoa salgai. 200cc. Paperak legez, eta oso egoera onean. ☎ 686 847 166

Lur-zorua salgai Azkaraten. 20.000 metro koadro (Bi hektarea). Sarbide oso ona eta itxitura. Malda oso txikia du. ☎ 645 048 110

**GARAJEAK.....**

Garaje marraduna saltzen dut Pista Beltzean. ☎ 696 550 356 / 653 863 482

**ETXEBIZITZA.....**

Etxe bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 660 458 756

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

**Gure komunitatean erabilera turistikorako etxebizitza bat dago. Jakin nahi nuke komunitateko kuota igo dakiokkeen etxebizitza honi ematen zaion erabilera bereziagatik.**


Araudiak, jabeen eta kuoten hiru bostenek hala adostuta, aukera ematen du finkan turismo-errentamenduak debekatzeko eta gastu komun %20rainoko osagarri bat ezartzeko. Egoera hori Jabeen Batzordearen erabakitik aurrera aplikatu daitezke, eta inoiz ez atzeraeraginezko ondorioekin. Horrek esan nahi du, jabeen eta kuoten ehuneko horiekin batzar berri batean onartzen bada, igoera une horretatik aurrera aplikatuko dela eta jarduera horiek egiten dituzten guztientzat izango dela, unean egiten ari direlako edo gero lizentzia lortzen dutelako. Legeak adierazten du gastu-kuota bereziak ezar daitezkeela edo etxebizitzako gastu komun partaidetza handitu daitekeela, jarduera hori egiten denean, lizentzia noiz lortzen bereizi gabe. Neurri hau jada erabilera turistikoko etxebizitza gisa erabiltzen direnentzat pentsatuta dagoela ulertuta. Kontuan hartu behar da gainerakoei, erreforma egin zenetik debekatu ahal izango zaiela, betiere, quorum hori lortzen bada; aldiz, dagoeneko jarduera garatzen ari direnei komunitateko kuota soilik handitu ahal izango zaie.


**ONDORIOA: Igoera, Jabeen Batzordean hala erabakitzen bada, jarduera egiten den etxebizitza guztietarako izango da. Lizentzia noiz lortu zen kontuan hartu gabe, baina akordioa hartzen den unetik aurrera bakarrik aplikatuko da.**



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  688 634 044 bidalita.




11 aldiz ospatu dugu zure urtebetetzea eta urtetik urtera poza handiagoa da. Zorionak, **Asier!**



Zorionak, **Mikel**, igandean 10 urte beteko dituzulako! Muxu erraldoi bat etxe-koen partez.



Zorionak, **Lan-der!** Astelehenean 7 urte! Patxo pila bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Malen**, gaur 3 urtetxo egin dituzulako. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familiako, eta bereziki, ahizpa Naroaren partez.



Zorionak, **Fran Huidobro**, amamaren partez. Osasuna opa dizuet hiruroi. Arrate.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**Mila esker  
zuen konfiantzagatik!**

- ★ **Kotoizko izara organikoak**
- ★ **Ehun iraunkorrak**
- ★ **Kotoi organikoa, leuna, naturala, transpiragarria eta hipoalergenikoa**

GOTS ziurtagiriarekin

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**BARREN sare sozialetan**



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)





## 28 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzea, Elgoibarren. Jubilatuen biltokian. Izena emateko: 623 328 408.

**18:00** Musika Eskolako dantza jaialdia. Olaizaga kiroldegian.

**18:30** 'Dramatitragoak' erakusketa ikus-terko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**20:00** Elkarretaratzea: *Josu Lariz etxera! Salbuespen espetxe politikarik ez!* lema-pean. Kalegoen plazan.

## 30 DOMEKA

**12:45** Bizikleta martxari harrera, Maailan. Presoen eskubideen alde, Sarek antolatuta, Oñaititik Elgoibarrera egingo dute martxa. Kalebarren plazan egingo dute segidan ekitaldia.

**19:00** Kontzertua: Mursego. Gararock taldeak eta Udalak antolatuta, Mendaroko San Agustin Kulturunean.

## 4 BARIKUA

**18:30** Erakusketa: 'Zubiak eraikitzen'. Activos por un Mundo Solidario eta Elkarheitzten elkarteek antolatuta, hilaren 8ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

**19:00** Musika Eskolako talde finkoen kontzertua. Herriko Antzokian.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Una joven prometidora'

28 barikua: 19:00  
29 zapatua: 19:00  
30 domeka: 19:00  
31 astelehena: 19:00

## TRINITATEAK 2021 Maiatzak 28, 29 eta 30

### 28 BARIKUA

Udaletxeko balkoia apainduko dute. Bandera haga erdian jarriko dute, Covid-19aren pandemiaren biktimen oroimenez. Alkateak agurra egingo du Udalaren webgunean.

### 29 ZAPATUA

**9:00** Trinitateetako azoka berezia. Herriko baserrietako produktuen salmenta eta Debabarreneko gazta azoka.

**15:00** Hil bukaerako ganadu feria.

### 30 DOMEKA

**9:00** Diana, Udal Txistulari taldearekin.

**10:00** Artisau azoka, Aita Agirre plazan.

**11:00** Meza, San Bartolome parrokian.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua, Kalegoen plazan.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

28 BARIKUA	29 ZAPATUA	30 DOMEKA	31 ASTELEHENA	1 MARTITZENA	2 EGUAZTENA	3 EGUENA	4 BARIXAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00  
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)  
943 201 912



**943 743 704**  
**688 769 657**



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

**Galdetu prezioak  
eta gustura erantzungo dizugu.**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH**  
**KGN36VWED**  
**KONBI**  
**HOTZGAILUA**

ATG **E**

**529 €**



- 326 litroko edukiera.
- Ez frost.
- Vitafresh kutxa, fruta eta barazkietarako.
- Vitafresh plus kaxoia, haragi eta arrainentzat.
- Neurriak: 186 x 60 x 66 cm.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

**Osasun gida**

federópticos

**ikus**

RPS 65/07

San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**aldaz**  
hortz klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**NATUR HOUSE**

**Ainara Iriondo Ansola**

GIZA ESKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Torbio Eteabaria, 22  
Eibar  
677 551 850



**FUB** Fernando  
Urizar  
Barandiaran

R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitikoak  
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
[furizar1@yahoo.com](mailto:furizar1@yahoo.com)  
615 715 404

**fisio&más**

Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 963 628  
[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)

RPS 67/18

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 beheak  
Elgoibar

943 531 953  
669 565 745



RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

Deba  
Tel.: 943 192 192

**Jeku**  
**eder**  
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Eparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053



# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK

**BICNA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.bicna.eus  
info@bicna.eus



**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com



Arroztegia · Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

- Aroztegiak
- Erreformak

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**

**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
tiende@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
tallero@pagoagasa.com

ELGOIBAR

**ONGI** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 1  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**SANTANA**



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

- Igeltseritza
- Pintura

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345  
677 512 462  
Pedro Migel Urruzuno, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## LEIHOAK

**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea